

Aldundiaren 2018ko kontu orokorrak superabita ematen du, eta aurrekontu egonkortasunaren helburuak bete direla berresten

Gasteiz, 2019ko ekainaren 18a. Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Arabako Lurralde Historikoko 2018ko kontu orokorra onetsi du, emaitza positibo edo superabitarekin.

Kontu orokor horrek Arabako Foru Aldundiak berak zein erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioek joan den ekitaldian egindako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak jasotzen ditu.

Horrela, bada, Arabako Foru Aldundiak eta haren erakundeek bete dituzte aurrekontu egonkortasunaren eta gastu araua betetzearen arloko helburuak, zeinak Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoak ezarri baitzituen. Erakunde horien kontsolidazioak emaitza positiboa izan du 2018ko kontuen likidazioan.

Nabarmendu beharra dago sektore publikoko zor kontsolidagarria 9 milioi euro murriztu dela eta finantza gastuak, aldiz, % 7,35, 2017. urtearekin alderatuta. Era berean, toki erakundeentzako guztizko finantziazioa % 3,07 handitu da, eta 243,5 milioi eurotik 250,9 milioi eurora pasa da.

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du, era berean, txostena Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, fiskalizatua izan dadin, bai eta Arabako Batzar Nagusietara ere.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Arabako Foru Aldundiak Uribarri Gaubeako saneamendu obrak esleitu ditu 612.000 euroan

Obrak gauzatzeko 6 hilabeteko epea izango da, eta hodi biltzaile berriak herriguneko hondakin urak Espejon dagoen Gaubeako araztegiara eramatea ahalbidetuko du

Foru Gobernu Kontseiluak esleitu ditu Uribarri Gaubeako hondakin urak Gaubeako HUAra eramango dituen hodi biltzailea eraikitzeke lanak. Construcciones Itola SA enpresa arduratuko da obrak gauzatzeaz, 6 hilabeteko epean eta 611.711 euroko aurrekontuarekin.

Lanak Omecillo ibaiko uraren kalitatea hobetuko dute. Arabako Foru Aldundiak beste zenbait saneamendu obra egin ditu jada helburu berarekin, besteak beste, Villanañeko, Gesaltza Añanako, Tuestako eta Espejoko hodi biltzaileetan, eta baita Villamadernekoan ere.

Omecillo ibaia Arabako Natura 2000 Sareko gune babestua da. Zehazki, kontserbazio bereziko eremua da, eta lehentasunezkoak diren eta galzorian dauden espezien bizilekua: haltza, lizarra, zumarra eta Mediterraneoko makala, lolina, bisoi europarra, eurasiar igaraba, martin arrantzalea eta ur zozoa.

33 toki erakundek landa bideak onik zaintzeko laguntza jasoko dute

Gobernu Kontseiluak Arabako landa bideak onik zaintzeko zerbitzua kontratatzeko prozesua ebatzi du; laguntza hori eskatu duten Arabako 33 toki erakundeei emango zaie. Nekazaritza Sailak 450.000 euro bideratuko ditu landa bideen egitura elementuak garbitu eta lehengoratu eta haien errodadura zona egokitzeko beharrezkoak diren lanak egiteko, eta beste lan batzuetarako ere bai, zeinak landa bideak baserriei edo nekazaritza ustiatzei zerbitzu emateko egokitzeko beharrezkoak baitira.

Laguntza gauzatan eskainiko da, hau da, Nekazaritza Sailak bere gain hartuko du landa bide horiek onik zaintzeko ardura, toki erakunde titularrei hori egiteko dirulaguntza eman beharrenean; beraz, landa bideak konpontzeko proiektuarekin, Arabako Foru Aldundiaren eginkizuna izango da aurrerantzean toki erakundeen eta udalen landa bideak onik zaintzeko lana.

Kontratuan 3 lote bereizi ziren, jarduteko zona banarekin. Oraingoan hiru zona izango dira jardunen onuradunak: 128.679,44 euro, Arabako Errioxako Kuadrillako zenbait bidetarako; 192.685,78 euro, Gasteizko zenbait bidetarako, eta 128.633,12, Gorbeialdea Kuadrillako beste batzuetarako.